GEM Euskal Autonomia Erkidegoa 2007 Txostenak jakitera eman du Europar Batasuneko jarduera ekintzailearen tasa altuena duela Gipuzkoak

Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera ekintzaileari buruzko "Global Entrepreneurship Monitor (GEM)" txosteneko laugarren edizioa Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztu da.

GEM 2007 Txosten Ekintzailean, 40 herrialde baino gehiagok parte hartzen dute eta Eusko Ikaskuntzak eta Lehiakortasunerako Euskal Institutuak elkarlanean garatu dute. Txostenak jakitera eman du azken urteotan, jarduera ekintzailearen tamainak hazkunde garrantzitsua izan duela, % 9,2 tasa lortu baitu. Maila horrek, ehun gipuzkoarretik ia hamar lan ekintzaileetan murgilduta daudela adierazten du, eta horrek Europar Batasunaren buruan eta Estatu Batuetako kopuruetatik (% 9,6) oso gertu kokatzen du lurralde historikoa.

Euskal Autonomia Erkidegoari buruzko GEM txostenean jaso diren datuekin, Euskadiren barnean, aitzindaritza garbiko postuan kokatzen da; progresio oso garrantzitsua izan du eta horrek lurralde historikoak, azken urteotan, ekintzaile-tasa hirukoiztera eraman du, 2004an % 3,4 baitzen. Berrikuntzarako eta Ezagutzaren Gizarterako Saileko diputatu den José Ramón Guridirentzat, ekintzailetzarekin zerikusia duten eragile sozial eta ekonomiko guztien esku-hartzeari esker eman den aurrerapena izan da, eta, oinarrian, *"gizarte gipuzkoarrean ekintzailetza sustatzearen ondorio izan da; jarduera-programa oso zehatzak egin dira gazte ekintzaileen, emakume ekintzaileen, spin-off teknologikoen edo barneko ekintzailetzaren esparruan"*.

PROFIL EKINTZAILEA

Pertsona ekintzailearen profilak Gipuzkoan, gehiengoan gizonezkoarena izaten jarraitzen du, lurralde honetako hamarretik sei eta zortzi ekintzaile artean gizonezkoak baitira. Horiek, batez beste, beren negozioa 35 eta 37 urte bitartean hasten dira planifikatzen, 39 urterekin beren enpresa-jarduera hasten dute eta 44 urterekin enpresa sendotzen dute. Ekintzaile euskaldunen heren batek unibertsitate-titulua du eta gehiengoak dio, beren negozio propioa martxan jartzeko arrazoiak zeintzuk diren galdetzen zaienean, nagusiki, arrazoi bakarra izaten dela: independentzia profesional altuagoa lortzea.

Nabarmentzekoa da ekintzaile berrien % 30 inguruk, negozioa hasi bezain laster, jarduera esportatzaile motaren bat hasten duela. Gainera, % 20k uste du bere produktu edo zerbitzua bakarra dela eta aurretik ez zela eskaintzen.

Ekintzaile berrien batez besteko errentak hilean 1.800 euro inguruan kokatzen dira, eta beren ekimenak martxan jartzeko erabiltzen duten hasierako kapitala, batez beste, 36.000 eta 80.000 euro bitartean dago.

PROIEKTUEN DIMENTSIOA HANDITU DA

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionean, Global Entrepreneurship Monitor, GEM, Txostenak adierazten du 2007ko jarduera ekintzailearen tasa 2006koa baino %20 handiagoa izan dela. Euskal Herrian, jarduera ekintzaileari ekiteko arrazoi nagusia "aukera" da, eta ez beharra, eta horrek aberastasun eta gizarte garapenean herrialderik aurreratuenen pare kokatzen du lurraldea.

GEM Euskal Autonomia Erkidegoa 2007 Txostenak ezagutarazi du, jarduera ekintzailearen "kalitateari" dagokionez, negozio hasi berrien ixte-tasak behera egin duela eta proiektu ekintzaileen dimentsioa handitu egin dela, hasieran sortutako enpleguari eta negozioaren hasieran inbertitutako kapitalari begiratuta; kapital horren batez bestekoa 72.693 eurotan kokatzen da, 2004 urtetik zenbateko altuena. Ekintzaileak berak jarritako kapitala 2006koa baino baxuagoa izan da; hortaz, geroz eta gehiago jotzen da kanpo-finantziaziora, eta lehen aldiz, autofinantziazioa proiektuaren hasierako kapitalaren % 50 baino gutxiago izatera pasa da EAEn.

Kontuan izan beharreko beste datu garrantzitsu batzuk, ondorengo hauek dira: proiektu ekintzaileek berrikuntzari eta nazioartekotzeari lotutako ezaugarri gehiago dituzte aurreko urteetan baino; barneko ekintzailetzako gaitasuna, hau da, oraingo enpresek negozio berriak sortzeko gaitasuna, handitu da, eta, gainera, emakumeen jarduera ekintzailearen tasa, oraindik ere, gizonezkoena baino askoz ere baxuagoa da.

GEM txostenak jakinarazi duen eta aldatzeko dagoen alde garrantzitsu bat, nahiz eta datu horiek adierazten duten egoera positiboa argia izan, jarduera ekintzaileak ez duela ospe eta onespen handirik euskal gizartean izan da eta horrek azalduko luke, neurri batean, gutxienez, EAEko jarduera ekintzailea, inguruko beste erkidego batzuetakoa baino pixka bat baxuagoa izatea.

Global Entrepreneurship Monitor, GEM, proiektua nazioarteko partzuergo akademiko bat da, herrialde eta eskualde desberdinetako jarduera ekintzailea ikertzea helburu duena. Proiektua 1997an jaio zen, Babson College (AEB) eta London Business School (Erresuma Batua) irakaskuntzako erakundeen lankidetzaren baitan. Proiektuak urtero txosten ugari egiten ditu, azterlanean parte hartzen duten herrialdeen artean jarduera ekintzailea alderatzeko aukera ematen dutenak.

Global Entrepreneurship Monitor, GEM Euskal Autonomia Erkidegoa proiektua 2004an sortu zen eta, aurten, erakunde horietako ikertzaileek parte hartu dute: Orkestra −Lehiakortasunerako Euskal Institutua, Deustuko Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea.

Ezkerretik eskuinera, Iñaki Peña, Euskal Autonomia Erkidegoko GEM Proiektuko Zuzendaria; José Ramón Guri, Gipuzkoako Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Diputatua; Alfredo García Ramos, Eusko Ikaskuntzako Soziologia eta Ekonomia Saileko Lehendakaria; eta Alicia Coduras Martínez, Espainiako GEMeko Zuzendari Teknikoa (Enpresa Institutua).